La Junta de Gobierno Local del pasado 30 de octubre aprobó el expediente de contratación relativo a la prestación de servicios de la red de Haurtxokos y Gaztelekus con un plazo de ejecución que va desde la formalización del contrato al 30 de junio de 2019, de modo que una vez más sigue manteniendo el servicio únicamente durante el curso escolar y plantea el cierre durante el verano.

Los haurtxokos y gaztelekus son espacios de socialización de menores y adolescentes en los barrios, con una oferta de ocio gratuito a nuestros menores que garantiza el derecho de los menores a un ocio educativo, tal y como recogen los principios 2 y 7 de la Declaración de los Derechos del Niño:

• “Baldintza sano eta normaletan handi dadin, fisiko, intelektual, moral, espiritual eta sozial mailan, askatasun eta duintasun osoz, babespen berezi bat, bai eta ahalbide nahiz erraztasunak eskaini behar zaizkio haurrari, legez edo beste edozein medioz. Honelako xedea defendatzen duten legeak onartzerakoan, haurraren goi mailako interesa irizpide nagusitzat hartu behar da”.

• “(...)Haurrak jolastu eta dibertitzeko aukera guziak izan behar ditu, heziketaren helburuetara bideraturik: gizarteak eta botere publikoek indar egin behar dute eskubide honen gozamenari lehentasuna emateko”

Udaleko Gazteria saileko 2017-2020 plan estrategikoan, haurtzaroaren, nerabezaroaren eta gaztaroaren sekzioak indartzeko markatutako erronka nagusietako baten barnean, haur eta nerabeek haurtxoko eta gaztelekuetan parte hartzea bultzatzeko zenbait ekintza planteatzen dira, horiek hobetu eta sustatzeko helburu ezberdinen artean, oporraldietako eskaintza garatzea planteatuz.

Modu horretan, gogoratu behar da 2019ko hurrengo udal aurrekontuetarako garatutako partaidetza prozesuan haurtxoko eta gaztelekuak urte osoan irekitzea planteatzen zuen hiritarren proposamen bat luzatu zela, eskolako oporraldiak barne. Haatik, hasierako bahean proposamen hori ezetsi egin zen, itxurazko arrazoirik eman gabe, eta horrenbestez herritarrek ez zuten aukerarik izan beren iritzia eman eta aipatutako ekimenaren aldeko babesa erakusteko.

Aurrez azaldutako arrazoiak direla medio,

• “El niño gozará de una protección especial y dispondrá de oportunidades y servicios, dispensado todo ello por la ley y por otros medios, para que pueda desarrollarse física, mental, moral, espiritual y socialmente en forma saludable y normal, así como en condiciones de libertad y dignidad. Al promulgar leyes con este fin, la consideración fundamental a la que se atenderá será el interés superior del niño”.

• “(...) El niño debe disfrutar plenamente de juegos y recreaciones, los cuales deben estar orientados hacia los fines perseguidos por la educación; la sociedad y las autoridades públicas se esforzarán por promover el goce de este derecho”.

El plan estratégico 2017-2020 del departamento de Juventud del ayuntamiento dentro de uno de sus principales retos marcados para reforzar las secciones de infancia, adolescencia y juventud plantea una serie de acciones que promuevan la participación de niños y niñas y adolescentes en haurtxokos y gaztelekus, planteando entre los distintos objetivos para su mejora y promoción desarrollar la oferta de períodos vacacionales.

Del mismo modo, es preciso recordar que en el proceso participativo desarrollado para los próximos presupuestos municipales de 2019 hubo una propuesta ciudadana que planteaba la apertura de haurtxokos y gaztelekus durante todo el año, incluyendo durante las vacaciones escolares. Sin embargo la citada propuesta fue rechazada en la criba inicial, sin un motivo aparente y por tanto la ciudadanía no pudo dar su opinión y mostrar su apoyo a la citada iniciativa.

Por las razones anteriormente expuestas,

aurkezten dugu hurrengo:

**KONTROL MOZIOA**

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari Haurtxoko eta Gaztelekuen sareko zerbitzuak emateari buruzko kontratazio-espedita alda dezan, haurtxoko eta gaztelekuak urte osoan ireki daitezen, baita udako oporraldietan ere.

Donostian, 2018ko azaroaren 29an

Sin.: Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea”.

presentamos la siguiente:

**MOCION DE CONTROL**

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a modificar el expediente de contratación relativo a la prestación de servicios de la red de Haurtxokos y Gaztelekus al objeto de garantizar la apertura de haurtxokos y gaztelekus durante todo el año, incluido el período vacacional de verano.

Donostia a 29 de Noviembre de 2018

Fdo.: Amaia Martin Garin  
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Martin Ibabe Eceiza jaunak eta Naiara Sampedro Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.<sup>a</sup> Amaia Martín Garín, D. Martin Ibabe Eceiza y D.<sup>a</sup> Naiara Sampedro Perez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**BAZTERTUA.**

**GEHIENGOA.**

**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2)**

**IRABAZI DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 14 – (8) EAJ-PNV, (6)**

**PSE-EE.**

**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**RECHAZADA.**

**MAYORÍA.**

**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2)**

**IRABAZI DONOSTIA.**

**VOTOS EN CONTRA: 14 – (8) EAJ-PNV, (6)**

**PSE-EE.**

**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**II.2.2. Kontrol mozio bateratua, EH BILDU, PP eta IRABAZI DONOSTIA taldeek aurkeztua,**

**II.2.2. Moción de control conjunta, presentada por los Grupos EH BILDU, PP e IRABAZI**

**zuhaitzak mozteari buruzkoa.**

“Loïc Alejandro, Irabazi Donostia taldeko zinegotziak, Miren Albistur Garmendiak, Talde Popularraren Bozeramaileak eta Ayem Oskoz Urrutikoetxeak, EH BILDU taldeko zinegotziak, Udaltzaren Araudi Organikoko 98. artikulua babesean, zuhaitzak mozteari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkeztu dute, ESPAZIO PUBLIKO, OBRA ETA ZERBITZUEN hilabete honetako Batzordean egindako interpelazioen ondoriozkoa.

**JUSTIFIKAZIOA**

Hilabete honetan, oposizioan dauden hiru taldeek hirian eskala handian egiten ari den zuhaitz mozketaren gaineko interpelazioa egiteko beharra dagoela ikusi dute. Ez da berria kolektibo ekologistek zein hiritarrek gai honen inguruan Udalarari helarazitako salaketa. Eta instituzioei dagokienez, 2016ko maiatzean eta 2017ko maiatzean Irabazi Donostia taldeak hirian zuhaitzak mozteari buruzko interpelazio bat eta mozio bat aurkeztu zuen.

Hiritarrak izututa daude egin diren eta egingo diren zuhaitz mozketak direla eta. Hasteko, orokorrean zuhaitzak gustuko dituztelako, hirian elementu naturalak izateko beharra dutelako, eta azkenik, ez dutelako mozketak guzti horiek egiteko arrazoia ulertzen.

Hiri handietako zuhaitzek ingurumen onura ugari sortzen dituzte, hala nola, airea garbitu, zarata gutxitu, oxigenoa sortu eta kutsadura murriztu CO<sub>2</sub>a xurgatzen baitute. Horrek guztiak klima aldaketari aurre egiteko lagungarri bihurtzen ditu. Izan ere, zuhaitz bakar batek ehunka kotxek sortutako kutsadura xurgatu dezake egun batean. Beraz, horiek

**DONOSTIA, relativa a la tala de árboles.**

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo municipal Irabazi Donostia, Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, y Ayem Oskoz Urrutikoetxea, concejal del grupo municipal EH BILDU, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presentan la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de las interpelaciones en la Comisión de SERVICIOS ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS del presente mes, relativa a la tala de árboles.

**JUSTIFICACIÓN**

Este mes, los tres grupos de la oposición coincidieron en la necesidad de interpelar sobre la tala de árboles que se está realizando a escala importante en la ciudad. No es ninguna novedad la denuncia que se traslada al Ayuntamiento tanto desde colectivos ecologistas como de la ciudadanía en general sobre el tema. Y a nivel institucional, en marzo de 2016 y en mayo 2017, el grupo Irabazi Donostia presentó una interpelación y una moción sobre la tala de arbolado en la ciudad.

La ciudadanía está alarmada por las talas masivas realizadas y por realizar, primero porque en general existe un gran apego al arbolado, una necesidad de contar con elementos naturales en la trama urbana; y segundo porque no se le explica el motivo de todas esas talas.

Los árboles en la ciudades generan grandes beneficios ambientales, como son la purificación del aire, minimizar el ruido, producen oxígeno y reducen la contaminación al absorber el CO<sub>2</sub>, lo que les convierte en un gran aliado para combatir el cambio climático. De hecho, un solo árbol puede absorber en un día los contaminantes emitidos por un centenar



mantentzeko inbertsioa egitea ingurumenerako ongizatean inbertsioa egitea da, eta ondorioz, hirietan bizi garen pertsonen osasunean ere.

Nazio Batuen arabera, "hirietako zuhaitz handiak hiriko kutsatzaileentzako eta partikula txikiak ezin hobekiak dira. Zuhaitzek fruta, fruitu lehorrak eta hostoak bezalako elikagaiak ematen dituzte. Zuhaitzetatik gertu egoteak osasun fisiko eta mentala hobetzen du, energia mailak eta errekuuperatzeko abiadura handitzen baititu, arteria-presioa eta estresa murrizten dituen bitartean. Eraikinetatik gertu modu egokian kokatutako zuhaitzek aire-girotuaren beharra %30ean murrizten dute, eta berokuntzan %20 eta %50 artean aurrezteko ekartzen dute. Zuhaitzek landare eta animalien habitata, elikagai eta babes dira, hiriko biodibertsitatea handituz".

2017ko maiatzaren 17an Donostiako ikasleek Eskola Agenda 21en markoaren barruan egindako lanaren aurkezpenean egon ginen. Ondorioetako bat hurrengo izan zen: "Zuhaitz gehiago ez moztea, eta gaixo daudelako mozten badira beste batzuk landatu, baina bertako espezieak". Eskari horrekin erabakidun gaudete.

Egun, moztutako zuhaitzen zerrenda handitzen doa, era ia esponenzialean gainera. Zuhaitzak berritzeko planak 800 zuhaitz moztea eta 1400 berri landatzea proposatzen du. Baina aldi berean batzordean adierazi zitzaigun leku askotan zuhaitzak elkarren artean gertuegi daudela, eta berriak landatuko direla euren arteko espazioa handituz. Beraz, kaleetako zuhaitz kopurua murriztuko da. Orduan, gure galdera da: non amaituko dute 1400 zuhaitz horiek?

de coches. Por lo tanto, invertir en su mantenimiento es invertir en bienestar para el medio ambiente y en consecuencia para la salud de las personas que habitamos en las ciudades.

Según las Naciones Unidas "los grandes árboles de las ciudades son excelentes filtros para los contaminantes urbanos y las pequeñas partículas. Los árboles proporcionan alimentos, como frutas, frutos secos y hojas. Pasar tiempo cerca de los árboles mejora la salud física y mental aumentando los niveles de energía y la velocidad de recuperación, a la vez que descienden la presión arterial y el estrés. Los árboles colocados de manera adecuada entorno a los edificios reducen las necesidades de aire acondicionado en un 30% y ahorran entre un 20% y un 50% de calefacción. Los árboles proporcionan habitat, alimentos y protección a plantas y animales, aumentando la biodiversidad urbana."

El 17 de mayo 2017 asistimos a la presentación del trabajo de los y las alumnas de Donostia en el marco de la Agenda Escolar 21. Un punto de las conclusiones a las que llegaron es: "No talar más árboles y si se talan porque están enfermos plantar otros pero que sean especies autóctonas". No podemos estar más de acuerdo con esa petición.

Hoy, el listado de arbolado talado no para de crecer y lo hace casi exponencialmente. El plan de renovación del arbolado plantea talar 800 árboles y plantar 1400 nuevos. Pero paralelamente se nos comentó en comisión que en muchos sitios los árboles están actualmente demasiado cerca los unos de los otros y que se plantarán nuevos con más espacio entre cada uno, con lo cual el número de árboles en las calles disminuirá. La pregunta es entonces ¿dónde irán esos 1400 árboles?

Horregatik guztiagatik, ondorengo KONTROL MOZIOA aurkeztuko dugu:

Por todo ello, presentamos la siguiente:

#### KONTROL MOZIOA

#### MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio hiriko zuhaitzen kudeaketa plan bat egiteko, udaleko Ingurumen Sailaren eta Ingurumen Kontseilu Sektorialaren parte hartzearekin.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/ San Sebastián insta al Gobierno Municipal a elaborar un plan de gestión de arbolado de la ciudad, contando con la participación del departamento municipal de Medio Ambiente y del Consejo Sectorial de Medio Ambiente.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio zuhaitz kopuru handia moztu aurretik, auzo elkarteei eta kaltetutako herritarrei jakinarazteko; eta edozein mozketatik idatziz justifikatzeko, dagokion udal zerbitzuek bermatutako irizpide teknikoetan oinarrituz.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/ San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, antes de cada actuación de tala que afecte a un número significativo de árboles, proceda a informar de la misma a asociaciones de barrios y vecindario afectado; y justifique por escrito cualquier tala, apoyándose en criterios técnicos avalados por los oportunos servicios municipales.

3. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio ingurumen eta herritarren ongizate irizpideak jarraitzeko, eta ez bakarrik irizpide ekonomiko eta teknikoak, hiriko zuhaitzen inguruko edozein ekintza egiterakoan.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián al Gobierno municipal a seguir criterios medioambientales y de bienestar ciudadano, y no solo criterios económicos y técnicos, ante cualquier actuación relativa al arbolado en la ciudad.

Donostian, 2018ko abenduaren 12an

Donostia a 12 de Diciembre de 2018

Ayem Oskoz Urrutikoetxea,  
EH Bildu taldeko zinegotzia.

Ayem Oskoz Urrutikoetxea  
Concejal del Grupo Municipal EH Bildu

Miren Albistur Garmendia,  
Talde Popularraren bozeramailea.

Miren Albistur Garmendia  
Portavoz del Grupo Popular

Loïc Alejandro.  
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia”.

Loïc Alejandro  
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak eta Miguel Angel Diez Bustos jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal, D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea y D. Miguel Ángel Díez Bustos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**BAZTERTUA.**

**GEHIENGOA.**

**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**RECHAZADA.**

**MAYORÍA.**

**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**ABSTENCIONES: 0.**

**II.2.3. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, martxoko Udalbatzarrean pentsiodunen inguruan hartutako konpromisoak direla eta.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko abenduaren 10ean Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

**JUSTIFIKAZIOA**

Donostiako Udalak 2017an emandako Gizarte Larrialdietarako Laguntzen inguruko datuek argi adierazten dute, urtetik urtera, gora egiten dutela laguntza hauek behar dituzten 65 urtetik gorako pentsiodunek. Datu orokorrak ikusita, 2015etik 2017ra GLLen eskaerek behera egin

**II.2.3. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre los compromisos adquiridos en el Pleno de marzo en relación a los pensionistas.**

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para que sea tratada en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas del 10 de diciembre de 2018.

**JUSTIFICACIÓN**

Los datos sobre las Ayudas de Emergencia Social concedidas por el Ayuntamiento de San Sebastián en 2017 muestran claramente que, año tras año, aumenta el número de pensionistas de más de 65 años que precisan de estas ayudas. Si nos fijamos en los datos

dute % 6,28. Baina, pertsona pentsiodunek egindako eskaerak ikusita, urtetik urtera diru laguntzak behar dituzten pentsiodun donostiarrak gero eta gehiago direla ikus dezakegu. Batez ere, 65 urtetik gorako emakumezkoak dira diru laguntza hauek beharrezkoak dituztenak, oinarrizko gastuei aurre egin ahal izateko, eta haien kopurua gora doa.

Pentsiodun horietatik % 80 emakumezkoak dira. Pobreziaren feminizazioaren eredu hau Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren kasuan ere errepikatu egiten da. Azkeneko datuek diote DSBEren onuradunen % 25 (15.500 pertsona) pentsiodun pobreak direla; hau da, hilerio 787 euro baino gutxiagoko pentsioa jasotzen duten pertsonak. Kasu honetan ere emakumezkoen egoera da kezagarriena; izan ere, DSBE jasotzen duten hiru pentsiodunetatik bi emakumezkoak dira.

Datu kezagarri hauen aurrean, pentsiodun asko ikusi dugu udaletxe aurrean zein kaleetan pentsio duinen aldarrikapena egiten urte hasieratik. Kezka hau ikusita, Udalbatzak gure taldeak proposatutako honako mozio hau onartu zuen aho-batez aurtengo martxoan:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari epe motzean komunikazio kanpaina zehatz bat egin dezala diru-sarrera urriak dituzten pertsona pentsionistek eska ditzaketan diru-laguntzen berri izan dezaten.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko jubilatuak etxeekin eta hirugarren adineko eragile zein elkarteekin saio

generales, las solicitudes de AES descendieron un 6,28 % del 2015 al 2017, pero, si atendemos a las solicitudes realizadas por las personas pensionistas, vemos que cada vez son más las pensionistas y los pensionistas donostiarras que necesitan ayudas. Son, sobre todo, las mujeres de más de 65 años las que necesitan estas ayudas para hacer frente a los gastos básicos. Además, el número de estas mujeres va en aumento.

De entre estas personas pensionistas, el 80 % son mujeres. También podemos observar esta feminización de la pobreza en lo que se refiere a la Renta de Garantía de Ingresos. Según los últimos datos de los que disponemos, el 25 % de las personas beneficiarias de la RGI (es decir, 15.500 personas) son pensionistas pobres, es decir, personas que cobran una pensión de menos de 787 euros al mes. También en este caso, la situación de las mujeres es la más preocupante, ya que, de cada tres pensionistas que perciben la RGI, dos son mujeres.

Debido a esta preocupante situación, desde principios de año, hemos visto a muchas y muchos pensionistas reivindicar una pensión digna, tanto delante del Ayuntamiento como en las calles de la ciudad. Consciente de todo ello, el Ayuntamiento aprobó por unanimidad la siguiente moción presentada por nuestro grupo, en marzo de este año:

1.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que realice a corto plazo una campaña de comunicación específica, para que las personas pensionistas con escasos ingresos estén al tanto de las ayudas económicas que pueden solicitar.

2. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que realice una sesión con los hogares del jubilado donostiarras y con

bat egin dezala, udal gizarte zerbitzuetan eska daitezkeen diru laguntza ekonomikoen berri emateko eta pentsionisten iritzi eta kezka jasotzeko.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azterketa bat egin dezala hiriko emakume pentsionisten pobreziaren inguruko diagnostiko bat edukitzeko.

Bost hilabete pasatu ondoren, ez genuen mozioan jasotako neurrien berri eta pentsionidunen plataformak zioenaren arabera, ez zen inongo bilerarik egin diru laguntza ekonomikoen berri emateko. Gauzak horrela, gaia batzordeetara eraman genuen irailean eta alkateak adierazi zuen pentsiodunen plataformak egindako eskaerei erantzuna emateko denbora behar zela eta horregatik ez zitzaizela erantzunik eman.

Alkateak ez zigun martxoko plenoan onartutako neurrien inguruan azalpenik eman (diagnostikoa edo komunikazio kanpainaren inguruan) eta berriro ere honako kontrol mozio hau aurkeztu genuen iraileko udalbatzarrean:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari martxoko udalbatzarrean onartutako neurriak (justifikazioan aipatzen direnak) hiru hilabeteko epean bete ditzala eta horren guztiaren berri eman diezaiola Alderdi Ederreko pentsionisten plataformari.

Kasu honetan ere, gure proposamena aho-batez onartu zen. Urtea amaitzen ari den honetan, Alderdi Ederreko Pentsionisten Plataformak idatzi bat aurkeztu du Udalean

agentes y asociaciones de la tercera edad, para ponerles al tanto de las ayudas económicas que pueden solicitar en los servicios sociales municipales y recoger las opiniones e inquietudes de las personas pensionistas.

3.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que realice un estudio para disponer de un diagnóstico respecto a la pobreza de las mujeres donostiaras pensionistas.

Transcurridos cinco meses, no sabíamos nada sobre el cumplimiento de las medidas recogidas en la moción. Además, según la plataforma de pensionistas, no se había llevado a cabo ninguna reunión para informarles sobre las ayudas económicas existentes. Por todo ello, volvimos a llevar el tema a las comisiones de septiembre. En palabras del alcalde, para dar una respuesta a las peticiones de la plataforma de pensionistas, hacía falta tiempo, y esa era la razón de que aún no se la hubieran dado.

El alcalde no nos dio ninguna explicación sobre las medidas aprobadas en el Pleno de marzo (sobre el diagnóstico o sobre la campaña de comunicación), por lo que, nuevamente, presentamos la siguiente moción de control en el Pleno de septiembre:

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, en un plazo de tres meses, cumpla las medidas aprobadas en el pleno de marzo (citadas en la parte expositiva) y dé cuenta de todo ello a la plataforma de pensionistas de Alderdi Eder.

También en esta ocasión, nuestra propuesta fue aprobada por unanimidad. Ahora que el año está a punto de finalizar, la Plataforma de Pensionistas de Alderdi Eder ha presentado un

(zka.199/35918) bere egonezina adieraziz. Ez dute ulertzen zergatik ez diren martxoko plenoan onartutako neurriak bete eta, bederatzi hilabete hauetan, ez dute berririk izan.

Abenduko batzordean, Gizarte-ekintzako delegatua interpelatu dugu eta haren erantzuna izan da mozioan jasotzen zen komunikazio kanpaina ez dela martxan jarriko ez delako laguntzen inguruko espektatiba faltsurik sortu nahi. Zaila egiten zaigu argumentu hau ulertzea; izan ere, hainbat udal sailetan eskaintzen diren diru laguntzekin komunikazio kanpainak egiten dira eta gero, herritarrak Udalera gerturatzekoan argitzen dira baldintza eta aukera zehatzak.

Aldi berean, delegatuak adierazi digu ez dela bilerarik egingo jubilatuen elkarteetan diru-laguntza sistemaren inguruan eta informazioa, erorikoen prebentzioaren tailerrekin batera emango dela. Uste dugu, erorikoen tailerrek ez dutela pentsiodunen multzo zabal bat erakartzen eta horrek informazioaren hedapena mugatzen du.

Bestetik, hiriko emakume pentsiodunen diagnostikoaren inguruko informaziorik ez du aipatu eta 2019ko Udal Gobernuaren aurrekontu proposamenean ez dago jasota ikerketa hori egiteko aurrekonturik.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

escrito al Ayuntamiento (registro de entrada nº: 199/35918), en el que expone su preocupación. No entienden por qué no se han adoptado las medidas aprobadas por el Pleno en marzo, y afirman que, en estos nueve meses, no han tenido noticia alguna sobre esta cuestión.

En la comisión de diciembre, hemos interpelado, una vez más, a la delegada de Acción Social. La respuesta que nos ha dado ha sido que la campaña de comunicación a la que se refiere la moción no va a llevarse a cabo, porque no quieren crear falsas expectativas en cuanto a las ayudas. Este argumento nos resulta difícil de entender, ya que, en el caso de otras subvenciones que conceden otros departamentos municipales, se llevan a cabo campañas de comunicación y, posteriormente, cuando las ciudadanas y los ciudadanos se dirigen al Ayuntamiento, se les informa sobre las condiciones y posibilidades concretas.

Así mismo, la delegada nos ha comunicado que no se va a hacer ninguna reunión en las asociaciones de personas jubiladas para explicar el sistema de subvenciones, sino que la información se dará junto con los talleres de prevención de caídas. Consideramos que los talleres de prevención de caídas no atraen a un conjunto amplio de pensionistas, por lo que la difusión de la información será limitada.

Por otro lado, la delegada no ha dado ninguna información sobre el diagnóstico relativo a las mujeres pensionistas donostiaras, y tampoco la propuesta de presupuestos del Gobierno Municipal para 2019 recoge ninguna partida para realizarlo.

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

**KONTROL MOZIOA:**

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari martxoko eta iraileko udalbatzarretan onartutako neurriak betetzeko baliabideak jar ditzala, Alderdi Ederreko Pentsionisten Plataformak egindako eskaerarekin bat eginez.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko emakume pentsiodunen pobrezia inguruko diagnostikoa egiteko baliabideak jar ditzala.

Donostian, 2018ko abenduaren 14an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

**MOCIÓN DE CONTROL:**

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que disponga los recursos necesarios para el cumplimiento de las medidas aprobadas en los Plenos de marzo y septiembre, en relación a las solicitudes de la Plataforma de Pensionistas de Alderdi Eder.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que disponga los recursos necesarios para realizar el diagnóstico sobre la pobreza de las mujeres pensionistas donostiarras.

San Sebastián, 14 de diciembre de 2018

Olaia Duarte López,

concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.<sup>a</sup> Olaia Duarte Lopez y D.<sup>a</sup> Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**  
**ONARTUA.**  
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**  
**APROBADA.**  
**UNANIMIDAD.**

-----

**II.2.4. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, informazioa eman ez izanari buruz.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU

**II.2.4. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la falta de información.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala

udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko azaroaren 12an Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios Generales el 12 de noviembre de 2018.

#### JUSTIFIKAZIOA

Udalbatzaren Araudi Organikoak ezarritako prozedurei jarraiki aurtengo irailaren 7an galdera idatzia zuzendu genion Eneko Goia Laso alkate jaunari honako termino hauetan.

“La Herrera inguruko bizilagunak oso adi daude Trintxerpetik Herrerara joango den bidea eraikitze obrak direla-eta. Zalantza ugari sortu dira obrak garatzen ari diren bitartean. Horietako bat, bidea sostengatuko duten hormek aurreikusitako altuera izango duten ala aurkezturiko egitasmoan zegoena baino altuagoak geratuko ote diren.

Obrak ez dira Udaleko ardura, nahiz eta parte bat bere jabegoaren gainean eraikiak egon baina, zalantzarik gabe Donostian bizi diren herritar ugariren egunerokoan eragingo du. Geroko mantenuaz zein arduratuko den ezin izan da argitu orain arte, Donostiako Udalarari nolabait eta zerbait egokituko zaiolakoan. Horregatik egokia Udala honen guztiaren gainean egotea.

Horiek horrela, honako GALDERA egiten dut:

#### GALDERA

1,- Egia al da Trintxerpetik Herrerara joango

#### JUSTIFICACIÓN

En virtud del procedimiento que el Reglamento Orgánico del Pleno establece, el 7 de septiembre de este año dirigimos una pregunta, para su respuesta por escrito, al alcalde, Sr. Eneko Goia Laso, en los siguientes términos:

“Las vecinas y vecinos de La Herrera siguen con mucha atención las obras de construcción del camino que comunicará Trintxerpe y Herrera. A medida que avanzan las obras han surgido numerosas dudas. Una de ellas se refiere a si la altura de los muros de contención del camino será la prevista en el proyecto presentado o si, finalmente, la superarán.

El Ayuntamiento no es el responsable de estas obras, si bien una parte de las mismas se desarrolla sobre dominio municipal, pero no cabe duda de que incidirán en el día a día de muchas personas que residen en nuestro municipio. Todavía no ha podido ser aclarado quién se hará cargo del mantenimiento futuro del camino, aunque parece ser que algo sí que corresponderá al Ayuntamiento de Donostia. En consecuencia, es conveniente estar al corriente de todas estas cuestiones.

Por los motivos expuestos, presento la siguiente

#### PREGUNTAS

1.- ¿Es cierto que los muros de contención del



den bidea eraikitzerakoan, berau sostengatzen duten hormak aurreikusitakoa baino altuagoak direla?

2,- Aurreko galderaren erantzuna baiezkoa izanez gero, gorago eraiki izan horrek gainkostuak izango ditu? Zenbatekoak?

3,- Eragina izango du irisgarritasunean? Zer beste ondorio izango dira?

4,-Argitu al da eraiki ondorengo mantenua zeini egokituko zaion? Lehen galderaren erantzuna baiezkoa balitz, eragingo al dio geroko mantenuaren kosteetan?"

Udalbatzaren Araudi Organikoak ezarritako epeak ia bi aldiz gainditu arren erantzunik jaso ez genuenez eta, aldiz, loturaren obrari buruzko xehetasun kezkarriak jaso eta ikusi genituenez, interpelazioa aurkeztu genion Udal Gobernuari zer zela-eta Udal Gobernuak ez zuen Udalbatzaren Araudi Organikoak ezarritako prozeduraren eta epeen arabera jokatu eta zer zela-eta ez zuen erantzun nahi izan.

Batzordean delegatuak erantzun ez izanaren akatsa onartu zuen, gertatutakoaren arrazoi argirik eman gabe, baina berehalakoan, gaia bideratuta zegoenez, erantzuna jasoko genuela. Irailaren 7tik hiru hilabete luze doaz galdera egin genuenetik, hilabete luze interpelazioa aurkeztu genuenetik... eta oraindik ere ez da inongo erantzunik eman. Dagoeneko alkatea bera aipaturiko obraren inauguraziora bertaratu ere egin zen, baina

camino de conexión entre Trintxerpe y Herrera alcanzarán finalmente una altura superior a la inicialmente prevista?

2.- Si la respuesta es afirmativa, ¿supondrá algún sobrecoste en el contrato?¿De qué cuantía?

3.- ¿Afectará a la accesibilidad?¿Qué otras consecuencias puede suponer?

4.- ¿Se ha aclarado quién se hará cargo del posterior mantenimiento del camino? Si la respuesta a la primera pregunta es que sí, ¿afectaría a los costes de mantenimiento futuros?"

Visto que no habíamos recibido ninguna respuesta, a pesar de que había transcurrido casi el doble del tiempo que el Reglamento Orgánico del Pleno establece para ello, y teniendo en cuenta que recibimos y observamos detalles preocupantes relacionados con esta obra de conexión, presentamos una interpelación al Gobierno Municipal para conocer el motivo por el que no se habían respetado el procedimiento y los plazos establecidos por el Reglamento Orgánico del Pleno. Asimismo, preguntamos sobre las razones por las que el Gobierno Municipal no quiso responder a la pregunta formulada.

En Comisión, la delegada reconoció el error de no haber respondido a dicha iniciativa, sin ofrecer una explicación clara de lo sucedido. No obstante, señaló que el asunto ya estaba encauzado y que recibiríamos la respuesta en breve. Han transcurrido tres meses desde que formulamos la pregunta, un mes desde que presentamos la interpelación, y seguimos sin recibir ninguna respuesta. A pesar de que el propio alcalde ha asistido ya a la inauguración

gure galderen erantzunak ez dira ailegatu.

Hogeita hamar eguneko epea zuen Gobernuak egindako galderari erantzuteko. Izan ere, agintaldi honetan Udalbatza honek jarritako epea da; alegia, Udal Gobernua osatzen duten kideek beraiek onartua baina betetzen ez duena.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Udal Gobernuari hertsiki eskatzen die dagokien moduan jokatzeko, eta alkate zein gobernu diren neurrian, Udalbatzak dituen arauen arabera jokatzeko, onartu dituen epeetan egiten zaizkion galderak erantzuten, atzerapen ulertezinetan erori gabe.

Donostian, 2018ko abenduaren 14an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”.

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/la señor/a D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**  
**ONARTUA.**  
**AHO BATEZ.**

de la citada obra, todavía no se nos ha remitido la respuesta a las preguntas que presentamos.

El Gobierno disponía de un plazo de 30 días para responder a la pregunta formulada. Ese es el plazo que este Pleno ha establecido en este mandato; es decir, el plazo que, a pesar de que lo han aprobado los propios miembros del Gobierno Municipal, no lo cumplen.

Por tanto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al alcalde y al Gobierno Municipal a que actúen como les corresponde, y a que, en calidad de alcalde o de gobierno, cumplan lo que el reglamento del Pleno establece para responder a las preguntas que se les formulen en los plazos que aprobó dicho Pleno, sin caer en dilaciones incomprensibles.

San Sebastián, a 14 de diciembre de 2018

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,  
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**  
**APROBADA.**  
**UNANIMIDAD.**

**II.2.5. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, tenperatura baxuetarako harrera baliabideak direla eta.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2018ko azaroaren 12an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorio da.

**JUSTIFIKAZIOA**

Azken asteetan, Irun eta Donostian migranteen harrera egiten duen harrera sareak komunikabideetan adierazi du negura begira harrera zerbitzuak beharko direla tenperatura baxuak daudenean migranteak gaez artatzeko.

Udalak badu zerbitzu bat, “Ateak Zabalik” izenekoa. Gaez aterpetzeko zerbitzu bat da eta hotzaldiak edo meteorologia baldintza bereziki gogorak iragartzen direnean zabaltzen da (Euskalmetek Gipuzkoako kostaldean izotz arriskua iragartzen duenean). 2017an, hamaika gaez zabaldu zen zerbitzua: urtarrilaren 3, 4, 5, 6, 7, 17, 18, 19, 20, eta 24an, eta abenduaren 2an. Iaz 94 lagunek erabili zuten (201 gaualdi).

Gure hirira migranteak iristen dira, transitoan edo ez, baina Udal Gobernuak ez du baliabide berririk aurreikusi negurako. Gainera, kale gorrian bizi direnen kontaktetan, aurten (urriaren 18an), Donostiako kaleetan bizi diren pertsonen kopurua bikoiztu egin dela egiaztatu da: 2016ko

**II.2.5. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, en relación con los recursos de acogida para las bajas temperaturas.**

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para que sea tratada en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios a las Personas el día 12 de noviembre de 2018.

**JUSTIFICACIÓN**

En las últimas semanas, la red que acoge a las personas migrantes en Irun y San Sebastián ha manifestado en los medios de comunicación que, cara al invierno, se necesitarán servicios de acogida para atender a estas personas cuando haya temperaturas bajas.

El Ayuntamiento tiene un servicio denominado “Ateak Zabalik” (Servicio de Puertas Abiertas). Se trata de un servicio de albergue nocturno, que se abre cuando se anuncian temporadas de frío o condiciones meteorológicas especialmente duras (cuando Euskalmet anuncia riesgo de hielo en la costa guipuzcoana). En 2017, el servicio se abrió once noches: los días 3, 4, 5, 6, 7, 17, 18, 19, 20 y 24 de enero y el 2 de diciembre. Y fue utilizado por 94 personas (201 pernотaciones).

A nuestra ciudad llegan personas migrantes, en tránsito o no, pero el Gobierno Municipal no ha previsto nuevos recursos para el invierno. Además, este año (a 18 de octubre) se ha comprobado que el número de personas que viven en la calle en San Sebastián se ha

kontaketan 48 pertsona zenbatu baziren, aurten 104 pertsona zenbatu dira gehi noraezean zeuden 50 bat pertsona migrante.

Horrez gain, uztailean iragarritako migranteentzako harrera zentro berria (Amaran ireki behar zena) ez da martxan jarri, horrek eragiten dituen hutsuneekin.

Hori dela eta, batzordeetan Gizarte-ekintzako delegatua interpelatu genuen eta gure kezka konpartitzen duela adierazi zigun. Aipatu zuen gogoeta bat egin dela kale kontaketakoko datuak ikusita eta tenperatura baxuetarako plaza kopurua handituko zela, baina ez zuen datu zehatzik eman eta helburuak zein baliabide zehatzak definitzea beharrezkoa ikusten dugu.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

**KONTROL MOZIOA:**

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hotzaldiak edo meteorologia baldintza bereziki gogorrak iragartzen direnerako dauden baliabideak handitzeko aukera azter dezala, 2018ko kale kontaketa datuen ondorioz.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, hotzaldiak edo meteorologia baldintza bereziki gogorrak iragartzen direnerako dauden baliabideak handitzen baditu, plaza kopurua zerrenda dezala eta Gizarte-ekintzako Kontseiluarekin zein udal taldeekin parteka dezala.

duplicado: en el recuento realizado en 2016, se contaron 48 personas y este año se han contado 104, más 50 migrantes sin destino concreto.

Además, el nuevo centro de acogida a personas migrantes que se anunció en julio, y que iba a abrirse en Amara, no se ha puesto en marcha, con la carencia que esto supone.

Por todo ello, interpelamos, en las comisiones, a la delegada de Acción Social, quien nos dijo que compartía nuestra preocupación. Según señaló la Sra. delegada, se ha llevado a cabo una reflexión, a la vista de los datos del recuento callejero. Añadió que iba a aumentarse el número de plazas para los días de baja temperatura, pero no dio datos concretos. Nuestro grupo considera necesario definir los objetivos y los recursos concretos.

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

**MOCIÓN DE CONTROL:**

1.- El Pleno Municipal insta al Gobierno Municipal a que estudie la posibilidad de aumentar el número de recursos de que se pueda disponer cuando se anuncian temporadas de frío o condiciones meteorológicas especialmente duras, teniendo en cuenta los datos del recuento realizado en 2018.

2.- El Pleno Municipal insta al Gobierno Municipal a que, si aumenta el número de recursos de que se pueda disponer cuando se anuncian temporadas de frío o condiciones meteorológicas especialmente duras, confeccione la relación del número de plazas existente y la comparta con el Consejo de Acción Social y con los grupos municipales.

Donostian, 2018ko abenduaren 14an

San Sebastián, 14 de diciembre de 2018

Olaia Duarte López  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Olaia Duarte López,  
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.<sup>a</sup> Olaia Duarte López, D. José Luis Arrúe Pintó y D.<sup>a</sup> Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**BAZTERTUA.**

**GEHIENGOA.**

**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE**

**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**RECHAZADA.**

**MAYORÍA.**

**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE**

**ABSTENCIONES: 0.**

**II.2.6. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Gernikako Arbolaren pasealekuak duen utzi itxurari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2018ko abenduaren 10ean izan zuen bileran Gernikako Arbolaren pasealekuak duen utzi itxuraz egindako interpelazioaren ondorioz.

**II.2.6. Moción de control, presentada por el Grupo PP, relativa al estado de abandono que presenta el Paseo del Árbol de Gernika.**

“Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 10 de Diciembre de 2018, relativa al estado de abandono que presenta el Paseo del Árbol de Gernika.

JUSTIFIKAZIOA

Gernikako Arbolaren pasealekuan jarri nahi dugu arreta. Izan ere, toki aparta da, hiriko Eremu Erromantiko betean kokatua, eta, hala ere, duela urte batzuetatik hona, okerrera doa pixkanaka. Horren arrazoiak askotarikoak dira.

Zenbait auzotarrek, eta inguru horretan ibiltzen direnek, hilabeteak daramatzate kexaka Moraza kalean, Gernikako Arbolaren pasealekuaren kantoian den erakin bateko etxabeetan, gero eta zabor gehiago pilatzen ari dela eta. Zorionez, gure taldeak eskatuta, Udal Gobernuak puntu hori garbitu du, eta pozten gara horretaz.

Bestalde, Maria Cristina erreginaren omenezko monumentu multzoak, zeinak Araba parkearekin egiten baitu muga, itxura zaindu gabea du aspalditik. Obra 1919koa da – herritarren harpidetzarekin finantzatua–; Leon Barrenetxea Torralbak egin zuen monumentuaren proiektua, eta Jose Diaz Bueno arduratu zen erreginaren irudia egiteaz.

Zinegotzi ordezkariak adierazi zuen ez dagoela aurreikusita eskultura multzoa hobetzeko jarduerarik, salbu eta landaretzarekin lotutako bat beheko aldean; hain zuzen ere, zuhaixkak eta loreak landatzeko asmoa dago hor.

